

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak bere dolumina adierazi du Juan Manuel Arza Muñuzuri lehendakari ohiaren heriotzagatik

Foru Exekutiboa zuzendu zuen 1980 eta 1984 artean, lehendabiziko hauteskunde demokratikoen ostean

Ostirala, 2019.eko martxoak 15

Nafarroako Gobernuak bere atasekabea adierazi du gaur Juan Manuel Arza Muñuzuri lehendakari ohiaren heriotzagatik, zeina Foru Exekutiboaren presidentea izan zen 1980 eta 1984. urteen artean.

Juan Manuel Arzak bere kargua hartu zuen diktadura frankistaren ostean, 1979an ospatutako lehendabiziko hauteskunde demokratikoen ostean. Barruti edo merindadeka egindako hauteskundera izan ziren eta 70 legebiltzarkide hautatu ziren. Hauteskunde horietara Juan Manuel Arza UCD alderdiaren izenean aurkeztu zen Lizarrako merindadetik. Bere hautagaitza izan zen bozkatuena eta hala, zazpi kide zituen Foru Aldundiaren parte izatera pasa zen Arza. 1980ko irailaren 29an Presidente hautatua izan zen, eta kargu hori bete zuen 1984 arte. Aurretik Lizarrako alkate eta zinegotzi zein Foru Ahaldun izan zen.